



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA

18/11/27

Bizkaiko Foru Aldundiak eta Bilboko Udalak 550.000 euro bideratu ebezan San Mames egokitzeko neurrietara eta segurtasunera, MTVko kontzertua zala eta

Bizkaiko Foru Aldundiak eta Bilboko Udalak, erdi bana, 550.000 euro bideratu ebezan joan dan zemendiaren 3an, MTV Music Week izenekoaren barruan, San Mamesen egin zan kontzerturako bedarra egokitzeko eta segurtasun neurrietarako.

Imanol Pradales diputatuak Bizkaiko Batzar Nagusietako Ekonomiaren eta Lurraldearen Garapenerako Batzordearen aurrean gaur goizean zehaztu dauenez, gastu hori bedarra aldatzera eta estaltzera, zelaia drainatzera, estadioaren kanpokaldeko segurtasun neurrietara eta fatxadako argietara bideratu zan. Ganerako jarduketak Viacom International-ek, MTV Sariak antolatzen dituan enpresak, hartu ebezan bere gain.

EH Bildu taldeak eskatuta, Ekonomiaren eta Lurraldearen Garapenerako Foru Diputatuak, San Mameseko kontzertuaren eta Music Week beraren antolakuntzari buruzko hainbat alderdi zehaztu ditu. Ekitaldi biek Foru Aldundiaren aholkularitza euki dabe, eta euren helburu nagusia, “halan gura eben bizkaitar guztiak MTV esperientzia bizi ahal izatea eta gozatzea” zan.

Pradalesek adierazo dauenez, Foru Aldundia, Bilboko Udala eta enpresa antolatzailea “pozik” dagoz show ireki horren emaitzagaz eta MTV WEEKek lortutako arrakasteagaz. Horrez gain, Aldundiaren eskariatako bat kontzertuan euskal talde bat egotea izan zan. Parte hartze horri esker, Diputatuaren berbetan, nazinoarteko ekitaldian “euskal kulturea arnastu” ahal izan zan.

Sarrerei jagokenez, Udalak eta Aldundiak “prezio herrikoa” eta bizkaitarrei lehentasunezko salmentea ezartea eskatu eutsien Viacom enpresari.

Modu berean, erositako sarreren salmentea “ahalik eta gehien” saihesteko xedez, prebentzinozko eta kontroleko sistema ezarri zan, persona bakotxak, bere NANagaz gehienez be lau sarrera erosi ahal izateko. Pradalesek adierazo dauenez, helburu hori “orokorrean lortu egin zan”, “ezaugarri horreek dituan kontzertu batean edo beste zerbitzu batzuetan erosi osteko salmentea saihestea oso gatxa” dan arren. Onintze Oleaga EH Bilduko batzordekidearen berbetan, barriz, sistema hori “ez zan egokiena izan”, “sare sozialetan erosi osteko salmentea asko zabaldu zalako”.

Oposizionoko ganerako taldeei jagokenez, Talde Mistoak modu positiboan balorau dau ekitaldi hori, Bizkaiarentzat eta bizkaitarrentzat izan dituan ondorioak dirala eta. San Mamesen kontzertua emoteko Berri Txarrak taldea zergaitik aukeratu zan galdetu dau Podemos taldeak; Foru Diputatuak adierazo dauenez, Aldundiak ez eban ezelango zerikusirik euki aukeraketa horretan.

Foru Gobernua eusten daben taldeen aldetik, Ignacio Jerónimo batzordekide sozialistaren eretziz, bai Music Week izeneko eta baita San Mameseko kontzertua be “oso onak” izan

ziran. Modu berean, Mikel Bagán Euzko Abertzaleak taldeko batzordekideak zoriondu egin ditu Ekonomiaren Garapenerako Saila eta Aldundi osoa, “MTV sarien ekitaldiak izan eban arrakasta handiarengaitik”. Hori guztia “nazinoarte mailako oso promozino garrantzitsua” izan da. Horrez gain, bizkaitar askok “euskal kulturak bere lekua euki dauen” ekitaldiaz gozatzeko aukerea euki dabela azpimarratu dau Bagánek.

AGERRALDI ESKARIA

Saioa, EH Bildu taldeak aurkeztu dauen agerraldi eskariaren onespengaz bukatu da, Iñaki López Calvo Centro de Desarrollo Empresarial CEDEMIren, egungo BIC Bizkaiaren, zuzendari gerentea Batzordera etorri daiten, Ezkerraldearen garapen ekonomikorako sortutako soziedade horren asmoak eta proiektuak zeintzuk diran jakiteko.

Talde guztiek aldeko botoa emon dabe, Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeek izan ezik. Talde biek abstenidutea erabagi dabe “ez dala guztiz Aldundiaren esku dagon soziedadea” eta informazio hori Foru Diputatuak urtero emoten dauela esanez.

NOTA DE PRENSA

27/11/18

La Diputación Foral de Bizkaia y el Ayuntamiento de Bilbao destinaron 550.000 euros a medidas de adecuación y seguridad en San Mamés durante la acogida del concierto MTV

La Diputación Foral de Bizkaia y el Ayuntamiento de Bilbao invirtieron, a partes iguales, un total de 550.000 euros a medidas de adecuación del césped y medidas de seguridad durante el concierto que tuvo lugar en San Mamés el 3 de noviembre en el marco del MTV Music Week.

Un gasto que, como ha detallado esta mañana ante la Comisión de Desarrollo Económico y Territorial de las Juntas Generales de Bizkaia el Diputado Imanol Pradales, se destinó al cambio del césped y cubierta del mismo, drenaje del campo, medidas de seguridad en el exterior del campo y luces en la fachada. El resto de acciones fueron asumidas por Viacom International, la empresa organizadora de los Premios MTV.

A petición del grupo EH Bildu, el Diputado Foral de Desarrollo Económico y Territorial ha detallado algunos de los aspectos sobre la organización del concierto de San Mamés y de la propia Music Week. Dos eventos que han contado con el asesoramiento de la Diputación Foral y que tenían como principal objetivo de que “toda persona de Bizkaia que tuviera interés, pudiera vivir y disfrutar la experiencia MTV”.

Tal y como ha manifestado Pradales, tanto la Diputación Foral, como el Ayuntamiento de Bilbao y la empresa organizadora de los premios se muestran “satisfechos” con el resultado de ese show abierto, y el éxito conseguido con la MTV WEEK. Asimismo, una de las peticiones de la Diputación fue la inclusión de un grupo vasco en el concierto, una participación que, según el Diputado, permitió que en el evento internacional se “respirara la cultura vasca”.

En lo que a las entradas se refiere, tanto el ayuntamiento como la Diputación sugirieron a Vaicon un “precio popular” y el establecimiento de una venta prioritaria a las personas de Bizkaia.

De igual manera, con el objetivo de evitar “al máximo” la venta de entradas, se estableció un sistema preventivo y de control para que cada persona pudiera adquirir un máximo de cuatro entradas con el DNI. Un objetivo que, según Pradales, “en general se consiguió”, a pesar de que “es muy difícil evitar la reventa en un concierto de estas características o en otros servicios”. Para la apodera de EH Bildu, Onintze Oleaga, sin embargo este sistema “no fue el más adecuado”, puesto que “en las redes sociales la reventa ha estado muy extendida”.

Por parte del resto de grupos de la oposición, el Grupo Mixto ha valorado positivamente este evento a efectos de Bizkaia y las y los vizcaínos. El grupo Podemos se ha interesado por las razones que impulsaron a la elección de Berri Txarrak para el concierto de San Mamés; una elección en la que, según el Diputado Foral, Diputación no tuvo nada que ver.

Desde los grupos que sustentan al Gobierno foral, el apoderado socialista Ignacio Jerónimo ha calificado como “un acierto” tanto la Music Weeik como el concierto en San Mamés. En la misma línea, el apoderado del Grupo Nacionalistas Vascos, Mikel Bagán ha felicitado al Departamento de Desarrollo Económico y a la Diputación en su conjunto “por el éxito de la gala de los MTV”, suponiendo todo ello “una promoción importantísima a nivel internacional”. Bagán, además, ha subrayado el hecho de que muchos vizcaínos y vizcaínas han tenido la posibilidad de disfrutar de un evento en el que “la cultura vasca ha tenido su sitio”.

SOLICITUD DE COMPARECENCIA

La sesión se ha completado con la aprobación de una solicitud de comparecencia, presentada por el grupo EH Bildu, de Iñaki López Calvo, director gerente del Centro de Desarrollo Empresarial CEDEMI, actual BIC Bizkaia, para conocer cuáles son las intenciones y los proyectos de esta sociedad creada para el desarrollo económico de la Margen Izquierda.

Todos los grupos han votado a favor a excepción de los grupos Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos. Ambas formaciones han optado por la abstención argumentando que “no es una sociedad plenamente foral” y que esta información es transmitida por el Diputado Foral anualmente.